



**LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDEZAKO PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO
ZUZENDARIAREN JARRAIBIDEAK, 2022-2023an ALDIAN PRESTAKUNTZA DUALAREN
EREDU BERRIA EZARTZEN JARRAITZEKO**

Euskadi ekonomia aurreratua izaten jarraitzeko aukerak lotura zuzena du lanbide-heziketako sistema indartsu eta zabala garatzeko gaitasunarekin, eta lanbide-heziketa duala oso zutabe garrantzitsua da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legean, helburu funtsezko eta estrategiko gisa jasotzen da Lanbide-Heziketa duala, Euskadin ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza duala deitzen dioguna, bultzatzea eta garatzea.

Historikoki, Administrazioaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko lankidetzaren bidez, eta enpresa-elkarte eta erakunde sindikalekin batera, hainbat esperientzia egin dira enpresako jarduna eta ikastetxeetako prestakuntza txandakatzeko. Esperientzia horien bidez, erantzun egokiagoa eman zaio produkzio-sareari, eta, hartara, pertsonen enplegarritasuna hobetu da.

Esperientzia horiek balorazio ona izan dute, eta, horregatik, bultzatu behar dugu are gehiago gara daitezen gure produkzio-sistemarekiko harremanak. Eta horretarako, enpresa-erakundearen eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko lankidetzaren indartu behar da, bi horien artean balioa sortzeko. Horrela, are gehiago sakondu ahal izango dugu gure Lanbide Heziketaren indarguneetako batean: gertutasuna eta lankidetzaren izatea Euskal Administrazioaren, Lanbide Heziketako ikastetxeen, enpresen, enpresa-erakundearen eta erakunde sindikalen artean.

Testuinguru horretan, hau ezartzen du aipatutako ekainaren 28ko 4/2018 Legeak: Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresa zein enpresa-erakundearen arteko partaidetza- eta lankidetzaren moduak sustatuko dituela, eta Lanbide Heziketa duala bultzatuko duela, modalitate guztietan. Ildo horretatik, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta gizarte eragilearen arteko lankidetzaren bultzatuko da, mota horretako heziketa sustatzeko, bai ikastetxeetan, bai enpresetan.

Gainera, prestakuntza dualari beste bultzada bat eman behar zaiola ikusi da, zerbitzu-sektoreak eta industria-sektoreak parte har dezaten, eta, bereziki, mikroETEEK, saltoki txikiek, hurbileko saltokiek eta autonomoek.



Trantsizio-une hauetan, 2021-2022 ikasturtean LHko ikastetxe publiko nahiz pribatu itunduetan esperientzia pilotu gisa hasi genuen enpresako prestakuntza dualaren eredu esperimental berria indartu beharra ikusten dugu, eta horren emaitzak oinarri gisa erabili ahal izango dira honako dekretu hauek aldatzeko: 156/2003 Dekretua, uztailaren 8koa, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen baitan Lantokiko Prestakuntza Modulua (LP) egiteko modua arautzen duena, eta 83/2015 Dekretua, ekainaren 2koa, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Horrela, egungo eta etorkizuneko beharrei eta egoerei erantzun ahal izango diegu.

Gainera, Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Legeak (2022-04-01eko BOE) honako hau ezartzen du, besteak beste:

- III. tituluari, «Lanbide Heziketaren izaera eta modalitateak»:
 - 55. artikulua (1. puntua): *“Konpetentzia Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionalari lotutako C eta D graduetako lanbide-heziketaren eskaintza guztia duala izango da, eta enpresa edo erakunde parekatuko prestakuntza-fase bat txertatuko da. E Graduak Espezializazio-lkasteroen eskaintza duala izango da, 52. artikuluan 1. paragrafoan aurreikusitako baldintzetan. A eta B Graduak eskaintzak izaera hori izan dezake edo ez, prestakuntza bakoitzaren ezaugarrien arabera”.*
 - 65. artikulua (1. puntua): *“C, D eta, hala badagokio, E mailako Lanbide Heziketako eskaintza guztiak, baldin eta Ziurtagiri Profesional bat, Lanbide Heziketako Titulu bat, Espezialista Titulu bat edo Lanbide Heziketako Master bat emateko badira, bi eskaintza-erregimenetako baten pean egingo dira, modu dualean, bai orokorrean, bai intentsiboan”.*
- **Seigarren xedapen iragankorrean** – Enpresako prestakuntza-aldia egokitzea –: *“2024ko abenduaren 31ra arteko aldi iragankorrako epea ezarri da enpresako prestakuntza-aldiaren egungo iraupena lege honetan Lanbide Heziketako eskaintza bakoitzerako aurreikusitakora egokitzeko.”.*

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da 2021-2022 ikasturtean hasitako Dualeko eredu berriak ezartzen jarraitzea, gure lanbide-heziketako sistemaren eta gure produkzio-sarearen ezaugarrietara eta berezitasunetara egokituz.



1.- Eredu dual berriaren helburuak:

- a. 1. mailako ikasleak enpresako prestakuntza dualean sartzea.
- b. Lanbide Heziketako ikasleen gaitasunak hobetzea, enpresako prestakuntza-orduak handituz.
- c. Enplegarritasuna handitzea, lan-ingurunean esperientzia eta prestakuntza-maila handiagoa egiaztatzen denean.
- d. Eredu dual horretarako sarbidea erraztea mikroenpresei, saltoki txikiei, hurbileko saltokiei eta autonomoei.
- e. Enpresako prestakuntza dualean parte hartzen duten ikasleen kopurua handitzea.

2.- Hartzaileak:

Honako baldintza hauek aldi berean betetzen dituzten ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute:

- a) LHko Sailburuordetzak baimendutako LHko ikastetxe publiko edo pribatu-itunduetako batean matrikulatuta egotea.
- b) Erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloren batean matrikulatuta egotea, bai LOEn, bai LOGSEn, eskaintza osoaren modalitatean.
- c) 16 urte beteta izatea enpresan edo lantokian hasten den egunean.

3.- Ezaugarriak:

- a) Oro har, heziketa-zikloak irauten duen bi ikasturteetan zehar izango da.
- b) **LHko ikastetxe integratu guztiek**, publikoek zein pribatu/itunduek, ibilbide berri horiek ezarri beharko dituzte. Ikastetxe batek ez badu ezarpen horretan parte hartzeko asmorik, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, parte ez hartzeko arrazoiak adierazita.



- c) **LHko ikastetxe ez-integratu publiko edo pribatu/itundu** batek Lanbide Heziketa Dualeko ibilbide berri horien ezarpenean parte hartu nahi badu 1. mailako ikasleekin, parte hartu ahal izango du. Kasu horretan, ikastetxeak Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio.
- d) Ibilbide berri horretan sartzen dira Lantokiko prestakuntza modulua (LP), curriculum-izaera duena, eta Lanbide Heziketa Duala. Eredu hori batera egituratu eta antolatuko da.
- e) Enpresako/lantokiko lanbide-heziketa dualaren ibilbide berri horiek honela egin ahal izango dira:
- Bi aldi desberdinetan (gaur egun, aldi bakarrean egiten zen). Kontuan izan egonaldia 16 egunekoa izango dela: 8 ordu egunean (guztira, 128 ordu) edo 7 ordu egunean (guztira, 112 ordu) ikasle adingabeentzat.
 - Bi modalitate desberdinetan:
 - Orain arte bezala: 3 egun ikastetxean eta 2 egun enpresan. Kasu horretan, eta bi aldi desberdin izan nahiko bagenu, aldi horietako bateko praktikak otsailaren erdialdean hasi beharko lirateke, eta bigarren aldia apirilaren 17an.
 - Enpresan/lantokian ezarritako 16 egunak metatzea. Adibidez:
 - 1. aldia: 2023ko apirilaren 17an hasi eta 2023ko maiatzaren 9an amaitu.
 - 2. aldia: 2023ko maiatzaren 10ean hasi eta 2023ko maiatzaren 31n amaitu.
- f) 1. mailan egingo diren enpresako edo lantokiko prestakuntzako 128 ordu horiek, 112 ordu ikasle adingabeentzat, curriculum-izaera izango dute, eta, beraz, ez dira ordainduko.
- g) Lehenengo ikasturtea amaituta, ikasleak aukera desberdinak izango ditu 2. urtea egiteko:
- **1. aukera:** Ikasleak irailtik martxora arte joango dira LHko ikastetxera (2. mailako 1. azken ebaluazioa), eta data horretatik aurrera, betiere Lantokiko Prestakuntzako modulua egiteko ezarritako irizpideak betetzen baditu, enpresan edo erakundeetan egingo dute prestakuntza, 8



orduko dedikazioarekin edo 7 orduko dedikazioarekin, ikasle adingabeen kasuan.

- **2. aukera:** Ikasleek Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen dituzte prestakuntza duala egiteko, eta prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratu bat edo beka bat dute. Kasu horretan, 2. ikasturte osoan, enpresako/lantokiko prestakuntza eta Lanbide Heziketako ikastetxeko prestakuntza txandakatuko dira, kasu bakoitzean ezarritako programan oinarrituta.
- h) Programan parte hartzen duten ikasleek eskola-asegurua izango dute, 28 urtetik gorakoek izan ezik, horiek aseguru osagarria izango baitute, ez baitaude aipatutako eskola-aseguruaren estalduraren barruan.
- i) Istripuetarako eta erantzukizun zibilerako aseguru-poliza osagarri bat kontratatuko da ikasle guztientzat. Poliza horrek enpresan/lantokian egiten duten jarduera guztia estaliko du, programa honen esparruan.
- j) Jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresetan edo lantokietan egingo da. Bestela, Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren baimena izan beharko du.
- k) Oro har, ikasleak bai 1. mailan eta bai 2. mailan akordioa sinatu duen enpresa/lantoki berean egingo du prestakuntza. 1. mailako prestakuntza amaitzean alderdietako batek, arrazoi justifikatuak tarteko, bigarren mailan prestakuntzarekin ez jarraitzea erabakitzen badu, LHko ikastetxeak beste enpresa/lantoki bat bilatuko du, ikasleak prestakuntza egin ahal izateko.

4.- Laneko Arriskuen Prebentzioari Buruzko Prestakuntza:

- a) Ikasleek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarritzko prestakuntza gehigarria jasoko dute, 12 ordukoa, enpresan edo lantokian hasi aurretik. Prestakuntza horretan, gai hauei buruzko edukiak emango dira:

- Oinarritzko prebentzioa.
- Sentsibilizazioa.



- Lanaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren aurreko jarrerak.
- b) Prestakuntza hori LHko ikastetxeetan emango da, bai LPOko irakasleen bidez, bai zerbitzuak kontratatuz.
- c) Prestakuntza eskola-orduetatik kanpo emango litzateke, gainerako ikasgaien prestakuntzan eraginik ez izateko. Hori 6 saiotan egin daiteke, saio bakoitzeko 2 ordu; 4 saio, saio bakoitzeko 3 ordu; edo ikastetxearen aukeretara eta berezitasunetara hobekien egokitzen dena.
- d) Prestakuntza hori enpresan edo lantokian prestakuntza dual gisa ikasleei ziurtatutako ordu guztietan sartuko da.
- e) Enpresak/lantokiak zainduko du ikasleei laneko segurtasunaren eta higienaren arloan aplikatu beharreko legeria betetzen dela.
- f) Enpresak/lantokiak informazioa eman beharko die ikasleei enpresako/lantokiko prestakuntza garatuko den lanpostuak dakartzan lan-arriskuei eta prebentzio-neurriei buruz.

5.- Prozesuaren egutegia:

- a) Ikasturteko lehen seihilekoan, LHko ikastetxeek Enpresako/Lantokiko Prestakuntza Dualaren ibilbide berrian parte hartzea proposatuko diete enpresei.
- b) Ikasturteko bigarren hiruhilekotik aurrera, LHko ikastetxeek prestakuntza dualeko modalitate berri horretan parte hartzeko prest dauden enpresen edo lantokien berri emango diete zikloetako ikasleei. Taldeko ikasle guztien parte-hartzea ahalbidetzen duen enpresa-kopuru bat izanez gero, ikastetxeak enpresa/lantoki bat esleituko dio ikasle bakoitzari. Talde bateko ikasle guztiek parte hartzeko enpresa nahikorik ez badago, edo taldeko ikasle guztiek prestakuntza enpresan edo lantokian ez egiteko arrazoi justifikagarriren bat badago, ikastetxe bakoitzaren esku uzten da taldeko ikasle batzuek parte hartzea, baldin eta:
 - Enpresan prestakuntzarako dauden plazak esleitzea ahalbidetuko duten irizpide objektiboak ezarrita izatea.



- Enpresetan prestakuntza jasoko duten ikasleak tutoretza esleituta izatea.
 - Enpresara/lantokira joaten ez diren ikasleek ikastetxera joaten jarraitu beharko dute, ordura arte bezala.
- c) Programan parte hartu nahi duten enpresa eta lantokiekin, lankidetzahitzarmena sinatuko da lanbide-heziketako ikastetxearekin.
- d) Ondoren, ikasleak esleituko dira, LHko ikastetxeak ezarritako irizpideak kontuan hartuta.
- e) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarrizko prestakuntza osagarria jaso ondoren, ikasleek enpresan edo lantokian hasi ahal izango dute prestakuntza-aldia.
- f) 1. mailan (2022-2023), enpresako edo lantokiko prestakuntza 128 ordukoa izango da (8 ordu/eguneko x 16 egun); eta 112 ordukoa (7 ordu/eguneko x 16 egun) ikasle adingabeentzat.

1. Ikasturtea amaituta:

- Enpresa/lantokiren batek ikas-ekinezko prestakuntza-kontratu bat edo beka bat sinatu nahiko balu, 1. maila amaitu duten ikasleek Prestakuntza Dualean jarraitu ahal izango dute 2. ikasturte osoan (800h – 1200h), hau da, ekainetik ekainera, uztailetik ekainera, edo irailetik ekainera, edo urritik ekainera, ikas-ekinezko prestakuntza-kontratuaren modalitatean, edo ekainetik/uztailetik/irailetik/urritik ekainera, beka modalitatean. Prestakuntza hori lehenengo ikasturtean prestakuntza egin duen enpresa/lantoki berean edo beste batean egin ahal izango da.
- LOE ziklo bateko 1. maila amaitu ondoren ikas-ekinezko prestakuntza-kontratu edo bekarik izan ez duten ikasleek, 2. maila egingo dute LHko ikastetxean, irailetik martxora bitartean. **“2. mailako 1. azken ebaluazioa”** egin ondoren, modulu guztiak gaindituta dituzten ikasleek prestakuntza-orduak egingo dituzte enpresan edo lantokian ikasturtea amaitu arte. Modulu guztiak gainditu ez dituzten ikasleek ezingo dute enpresako prestakuntzarekin jarraitu.



- 2.000 orduko LOGSE ziklo bateko 1. maila amaitu ondoren ikasleek 2. maila egingo dute LHko ikastetxean, irailtik martxora bitartean. **“Ohiko ebaluazioa Lantokiko Prestakuntza aurretik”** egin ondoren edo **“2. mailako Aparteko Ebaluazioa”** egin ondoren, modulu guztiak gaindituta dituzten ikasleek edo modulu bat gainditu gabe dutenek (1. edo 2. mailakoak), betiere 200 ordu gainditzen ez badituzte, prestakuntza-orduak egingo dituzte enpresan edo erakunde parekatuan, ikasturtea amaitu arte. Irizpide horiek betetzen ez dituzten ikasleek ezingo dute enpresako prestakuntzarekin jarraitu.
- LOGSEren 1.400 orduko ziklo bateko 1. maila amaitu eta **1. mailako Amaierako Aparteko Ebaluazioa** edo **“2. mailako Amaierako Aparteko Ebaluazioa”** egin ondoren modulu guztiak gaindituta dituzten ikasleek edo modulu bat gainditu gabe dutenek (1. edo 2. mailakoak), betiere 200 orduak gainditzen ez badituzte, prestakuntza-orduak egingo dituzte enpresan edo lantokian, ikasturtea amaitu arte. Irizpide horiek betetzen ez dituzten ikasleek ezingo dute prestakuntza jasotzen jarraitu enpresan/lantokian.

6.- Lanbide-heziketa Dualaren ibilbide berrien planqintza enpresan edo lantokian.

LHko zentroak eta enpresak edo lantokiak adostu beharko dute prestakuntza-jardueren banaketa. Banaketa hori enpresako edo lantokiko prestakuntza Dualeko Programan zehaztuko da, eta zortzi atal izango ditu, eredu berri honen helburuak betetzen direla bermatzeko. Hona hemen atal horiek:

1. LHko tituluaren identifikazioa.
2. Parte-hartzaileen identifikazioa.
3. Ikasleak enpresan edo lantokian ikaskuntzak garatuko dituen lanpostuaren identifikazioa.
4. Ordu-banaketa eta egutegia. Kontuan hartu ikaslea adingabea den.
5. Ikaskuntzaren emaitzen araberako programazioa eta enpresan edo lantokian garatu beharreko jardueren zerrenda.
6. Aurreikusitako ebaluazio-sistema.
7. Ikastetxeko eta enpresako tutoreak ikasleari arreta emateko plana eta horren aldizkakotasuna.



8. Ikasleen konpromisoa enpresako prestakuntza dualeko programa garatzeko. Adingabeen kasuan, adingabearen gurasoek edo tutoreek sinatuko dute konpromiso hori.

7.- Lanbide Heziketako Ikastetxea

- a) Lankidetzahitzarmena sinatuko du enpresarekin.
- b) Tutore bat izendatuko du, parte hartzen duen ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko.

8.- Enpresa edo Lantokia

- a) Lankidetzahitzarmena sinatuko du LHko ikastetxearekin.
- b) Instruktoe bat izendatuko du, ikasleari enpresako prestakuntzan laguntzeko.

9.- Tramitazioa

- a) *Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak onartu beharko ditu planen proposamenak. Horretarako, enpresaren edo lantokiaren, tutorearen, instruktorearen eta ikasleen datuak beteko dira, bai eta enpresan edo lantokian bete beharreko egutegia eta ordutegia ere, Dualeko aplikazioan*
- b) Plana onartu ondoren, ikastetxeak eta enpresak edo lantokiak lankidetzahitzarmena sinatuko dute, Enpresako Prestakuntza Dualeko Programa berria egiteko baldintzak jasotzen dituen.
- c) Adin nagusiko ikasleek, edo, hala badagokio, legezko tutoreek, idazki bat sinatu eta entregatu beharko dute prestakuntza-zentroan jardura hasi aurretik. Idazki horren bidez, programari buruzko informazioa jaso dutela adieraziko dute, eta enpresaren edo lantokiaren eta lanbide-heziketako zentroaren barne-arauak zorrotz beteko dituztela.

10.- Adingabeak

Adingabeen kasuan, informazio hau eskatzen zaio enpresari/lantokiari:

- a) Egin beharreko lanen deskribapena.



- b) Adingabeak prestakuntza jasoko duen lanpostuaren arriskuen ebaluazioa (adingabea izateak dakartzan arriskuak berariaz aipatuta, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera).
- c) Adingabeari eta gurasoei lanpostuaren arriskuei eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa ematea.

11.- Tutoretza

LHko ikastetxeko tutoreak parte hartzen duen ikasle bakoitzaren jarraipena egingo du. Enpresako edo lantokiko instruktorearekin harremanetan jarri beharko da, gutxienez hilean behin, eta enpresarekin aurrez aurreko bilera bat egin beharko du, gutxienez hiru hilean behin. Jarraipena egiteko, fitxa bat bete beharko da, eta enpresan edo lantokian egindako jarduerak ere aipatuz.

12.- Programaren memoria.

Prestakuntza-jarduera amaitzean, lanbide-heziketako ikastetxeak beharrezko informazioa bilduko du, programa bere osotasunean baloratu ahal izateko. Puntu hauek jaso beharko ditu, baita interesgarritzat jotzen diren beste datu batzuk ere.

1. erakarpenaren hasierako etapan:
 - Ikasleek erakutsitako interesa.
 - Enpresek erakutsitako interesa, prestakuntza-familiaka.
 - Prozesu honetan aurkitutako zailtasunak.

2. Enpresako prestakuntza dualeko programa berriaren garapenean:
 - Ikasleak enpresetan edo lantokietan egokitzea.
 - Enpresetan 1. ikasturtean egindako lanen bilakaera.
 - Ika-ekinezko prestakuntza-kontratu bat edo beka bat hautatzen duten enpresen kopurua 1. ikasturtea amaitu ondoren, eta kontratu edo beka horren onuradun diren ikasleen kopurua.

3. Programa amaitzean:



- Ikasleen eta enpresen iritziak prestakuntza-familien arabera.
- Zikloa amaitu ondoren enpresetan jarraitzen duten ikasleen kopurua.

Ikasturtearen amaieran, inkesta bat egingo zaie ikasleei, enpresei eta tutoreei.

13.- Egiaztapena

Programa honetan parte hartu duten ikasleek ziurtagiri bat jasoko dute, enpresako prestakuntzaren iraupen osoa jasoko duena (III. eranskinaren arabera).

14.- Enpresako Prestakuntza Dualeko moduluen ebaluazioak eta kalifikazioak.

Enpresako prestakuntza-aldi horrek ikasleen prestakuntza indartzeko eta enpresan ordu gehiago egin direla egiaztatzeko balioko du. Beraz, proiektuan inplikaturako moduluak hartuko dira kontuan, aurreikusitako ebaluazio-sistemaren arabera.

Enpresako/lantokiko prestakuntza curriculumaren parte da, eta, beraz, ***esleitutako enpresara ez joatea*** zentroan emateari utziko dioten moduluetara ez joatetzat hartuko da, eta bertaratze-hutsegiteei buruzko araudia aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 30(e)an

Sinatuta:

**PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA ZUZENDARIA
DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORGANIZACIÓN**